

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 6/2022 Foru Dekretua, otsailaren 8koa. Onespena ematea Gazteriaren Foru Erakundeak aterpetan eskaintako zerbitzuengatik eta jarduerengatik ordaindu beharreko prezio publikoak eguneratzeari

Arabako foru sektore publikoaren tasa eta prezio publikoei buruzko ekainaren 27ko 9/2018 Foru Arauak 25.1 artikuluan ezarri zuenez, Foru Gobernu Kontseiluaren eskumena da erabilitzaileei ematen zaizkien zerbitzuengatik eskatu behar zaien prezioa finkatzea eta aldatzea, eta horien artean sartzen dira Gazteriaren Foru Erakundeak eskaintzen dituenak.

67/2010 Foru Dekretuaren bidez, abenduaren 30eko Foru Gobernu Kontseiluarena, Gazteriaren Foru Erakundeak aterpetxeetan emandako zerbitzu eta jardueren prezio publikoen arautegia onartu zuen. Dekretu horren bigarren Eranskinean, aplikatu beharreko prezio publikoak jasotzen dira.

Horregatik guztiagatik, Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak, 2021eko abenduaren 27an, ondokoak proposatu ditu: eta arau horren II. eranskinean jasotako prezio publikoak aldatzea ere.

Horiek horrela, Ekonomia Jardueren eta Deszentralizatutako Zerbitzu Juridikoen Jarduerari buruzko urriaren 30eko 15/1987 Foru Arauak 7. artikuluan xedatutakoaren harira Arabako Foru Aldundiaren Antolaketari, Funtzionamenduari eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8. artikuluan xedatutakoa kontuan hartu, eta Kontuhartzaitza Zerbitzuaren ezinbesteko eta alde zuzeneko txostena eskatu da.

Horregatik guztiagatik, Kultura eta Kiroleko diputatuak eta lehenengo diputatu nagusiordea eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako diputatuak batera proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, honako hau:

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Gazteriaren Foru Erakundearen sarea osatzen duten aterpetxeetako zerbitzuak erabiltzeagatik, organismo erakunde edo partikularrei ezarritako prezio publikoen araudiaren 67/2010 Foru Dekretuaren 2022rako I. eranskinean jasotako prezio publikoen eguneratzea.

Bigarrena. Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendaria ahaldundu foru dekretu honetan aurreikusita ez dagoena ebazteko.

Hirugarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Laugarrena. Araudi berri hau ALHAOn argitaratzeko agindu da.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 8a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kultura eta Kirol Saileko diputatua

ANA DEL VAL SANCHO

Lehenengo diputatu nagusiordea eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Kirol zuzendaria

ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ

Finantza eta Aurrekontu zuzendaria

EDUARDO LÓPEZ DE AGUILETA DÍAZ



I ERANSKINA / ANEXO I

2022. urtean Arabako Gazteriaren Foru Erakundeko aterpetxeak erreserbatu eta erabiltzeagatik eta bertako zerbitzuengatik eska daitezkeen prezio publikoak.

Cuantía de los precios públicos exigibles por la prestación de servicios y la reserva y utilización de diversas dependencias de los albergues del Instituto Foral de la Juventud de Álava, durante el año 2022.

2022rako, Gazteriaren Foru Erakundearen aterpetxeetan zerbitzuak emateagatik prezio publikoen tarifak honako hauek izango dira:

Para 2022 las tarifas de los precios públicos por la prestación de servicios en los albergues del Instituto Foral de la Juventud serán las siguientes:

2022rako PREZIO PUBLIKOAK			
PRECIOS PÚBLICOS 2022			
ZERBITZUAK SERVICIOS	ITUNDUA CONCERTADA	ARRUNTA NORMAL	
	Gazteak Jóvenes	Gazteak Jóvenes	Helduak Personas adultas
PENTSIO OSOA PENSIÓN COMPLETA	24,00	30,00	38,00
BAZKARIA / COMIDA	8,40	9,40	10,50
AFARIA / CENA	8,40	9,40	10,50
OSTATUA ETA GOSARIA ALOJAMIENTO Y DESAYUNO	13,50	17,80	23,00
IZARAK ALOKATZEA ALQUILER DE SABANAS	3,70	3,70	3,70
Instalazioak erabiltzea, hitzartutako orduetatik kanpo Utilización de instalaciones fuera del horario convenido	Gutxienez 2 euroko faktura pertsonako Facturación mínima 2 euros por persona		
Zerbitzu bereziak Servicios especiales	Fakturazioa, kostuaren arabera Facturación según coste		